

AGURRA

Liburu hau garaipen bat da, zeren 2012. urtetik hona, hau da, “1936-37ko Gerra Zibila Plentzian eta Uribe Kostan” gaiaren inguruan V. Historia Jardunaldiak antolatu zirenetik hona, Batzorde Zientifikoa gogor borrokatu behar izan baita liburu honen argitalpena eragozten zuten oztopo guztiak gainditzeko. Borroka horretan sekula amore eman ez duelako, gure esker bizienak lanaren koordinatzaileari. Zorionak!

2012. urtean, Isamari Zarauza Norato genuen Plentziako alkatea. Plentziako alkatetzara iritsitako lehen emakumea zen, eta bere agintaldiko zortzi urteetan argi erakutsi digu, inork horren frogarik behar bazuen ere, Plentziako emakumeak gauza direla udala modu eraginkorrenean kudeatzeko. Horra Isamarik utzi digun ondarea.

Gaur, Jardunaldiako Batzorde Zientifikoko kide izan naizen honek erreleboa hartzen diot Isamariri Jardunaldien presidentzian, eta aukera hau baliatzen dut agur anaikor bat bidaltzeko denoi, *talaiatzat* harturik horretarako Eusko Ikaskuntzaren “Lankidetzan” Bildumak Plentzia eta Uribe Kostako Historia Jardunaldiei eskainitako hirugarren liburu hau. 2012ko Jardunaldiako hiru egunetan Plentziako Goñi Portal Kultur Etxeko aretoa jendez gainezka egon zen, berandu heldu zirenak eskaileretan pilatu edo ganbarara igo behar izateraino. Hitzaldi guztiak erabateko isiltasunean entzun ziren. Asko zegoen jokoan.

Gertakarietatik hirurogei eta hamabost urte geroago, zein bere arloan espezializatutako sei adituk beren ikerketa eta ondorioen berri eman ziguten. Gerra Zibilaren ondorio humano latzak, herritarren arteko salaketak, alde bataren nahiz bestearen (Errepublika demokratikoaren eta diktadura militarraren) errepresioaren beldur gorria, gerrak ekarritako hondamen humano, sozial eta ekonomikoa... gai horiek guztiak modu zientifikoan aztertu eta interpretatu ziren.

Liburu honek aukera ematen digu gogoeta egiteko 2012ko hiru hitzaldiri baino zertxobait gehiagori buruz. Ondo dakit arlo honetako ikerketak bide luzea daukala egiteko oraindik, baina seguru nago liburu honetan jasotako informazioak asko lagunduko digula geure burua hobeto ezagutzen eta, ezagutza horrek argiturik, hobeto zerbitzatzen gure herria, Plentzia, Bizkaia eta Euskal Herria.

David Crestelo
Plentziako Alkatea

SALUDO

Este libro vale un triunfo porque desde 2012, cuando se celebraron las V Jornadas de Historia dedicadas a “La Guerra Civil de 1936-37 en Plentzia y Uribe Kosta”, el Comité Científico ha batallado hasta superar toda clase de problemas hasta que sea una realidad. Agradecemos al Coordinador que no se haya rendido en el empeño. Zorionak!

Entonces, en 2012, era Alcaldesa de la Villa nuestra predecesora Isamari Zarauza Norato. Era también el precedente de una mujer en el Gobierno de la Villa y durante ocho años ha demostrado, por si hiciera falta, que las mujeres de Plentzia son capaces de gestionar las tareas municipales con la mayor y mejor solvencia. Ahí está su legado.

Hoy le tomo el testigo en la Presidencia de las Jornadas, de las que he sido miembro de su Comité Científico, y tengo la satisfacción de dirigiros un fraternal saludo desde la atalaya del tercer libro que la Colección “Lankidetza” de Eusko Ikaskuntza dedica a las Jornadas de Historia de Plentzia y Uribe Kosta. Durante las tres Jornadas de 2012 la sala de la Casa de Cultura de Plentzia, Goñi Portal, se desbordó de asistencia, los rezagados se quedaban en las escaleras o subían a la gambara. Las ponencias se escucharon con un silencio total. Había mucho en juego.

Después de setenta y cinco años, seis investigadores especialistas en sus campos de trabajo, nos dieron cuenta de sus averiguaciones y conclusiones. Las consecuencias antihumanitarias de la Guerra Civil, las cobardes denuncias entre vecinos, el pánico ante las represiones de uno y otro campo (la República democrática y la dictadura militar), las ruinas humanas, económicas y sociales... fueron asuntos analizados e interpretados científicamente.

Este libro nos permite leer y reflexionar sobre algo más de tres de las colaboraciones de 2012. Tengo presente que aún hay un largo recorrido por hacer en el campo de la investigación sobre este tema, pero estoy seguro de que lo que este volumen recoge nos aportará mucho y bueno para re-conocernos y ser mejores personas al servicio de nuestro pueblo, Plentzia, Bizkaia, Euskal Herria.

David Crestelo
Alcalde de Plentzia